

Eugenio Artetxe Palomar
Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendaria
Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza
Segurtasun Saila

Jaun hori,

Prebentzio, su itzaltze eta salbamendu zerbitzuak arautzeko Lege Aurreproiektuaren berri jaso genuen Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzan iragan azaroaren 14an, euskaraz eta gaztelaniaz, Tramitagune tresna informatikoaren bitartez, Segurtasun Saileko Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritza horretatik bidalita, derrigorrezko txostena emateko eskatuz.

Eskaera horri erantzunez, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua, eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuaren 22.l) artikulua oinarri hartuta, txosten hau ematen dut:

a) Hizkuntza arloko araudiaren betetze maila.

Prebentzio, su itzaltze eta salbamendu zerbitzuak arautzeko Lege Aurreproiektua aztertu ondoren, egungo hizkuntza araudia urratzen ez duela adierazten dut.

Bestalde, kontuan harturik Lege Aurreproiektuaren euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak daudela, bete da Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 14an hartutako Erabakian jasotakoa, lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorrak bi hizkuntzetan idazteko neurriak onartu zituen.

b) Euskararen erabileraren normalizazioaren gainera eragina.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua onartu zuen abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak xedatzen du autonomia erkidegoak eskumena duela segurtasun publikoaren gainean (17. artikulua). Halaber, autonomia erkidegoak bakarreko eskumena du toki araubideari eta autonomia erkidegoko zein toki administrazioi funtzionarioen estatutuari dagokionez, Konstituzioaren 149.1.18 artikuluan finkatutakoari kalterik egin gabe (10.4 artikulua).

Azaroaren 25eko 27/1983 Legeak autonomia erkidegoko erakunde komunak eta lurralde historikoetako foru organoak arteko harremanak arautzen ditu, esanez suteen aurkako babesari dagokionez lurralde historikoek erakunde komunak legeria gauzatuko dutela (7.c.4 artikulua).

Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legeak dio lurralde historikoei dagokiela “*sute- eta salbamendu-zerbitzuak sortzea, antolatzea eta edukitzea, lege honetan eta ezargarri diren gainontzeko legeetan ezartzen denaren arabera*”, eta “*suteen aurkako defentsarako gaiaz guztientzako erakundeetatik datozen legeria eta arau-garapena egiteratzea*” (6. artikulua d eta e idatz zatiak), eta udalerriei “*sute- eta salbamendu-zerbitzuak sortzea, antolatzea eta edukitzea, lege honetan eta toki-araubidearen legerian ezartzen denaren arabera*” (7.2 artikulua). Era berean, IV. kapituluaren sute eta salbamendu zerbitzuak arautzen dira.

Orobat, ekainaren 28ko 15/2012 Legeak Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema antolatzea zuen xede.

Estatu mailako legeriari dagokionez, toki araubidearen oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak hoge mila biztanle baino gehiago dituzten udalerriak babes zibila, suteen prebentzio eta itzaltze zerbitzuak edukitzera behartzen ditu (26.1.c artikulua). Bestalde, aipatzekoa da Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua onartu zuen apirilaren 12ko 7/2007 Legea ere.

Arau horiek guztiak aintzat hartuta, orain izapidetzen ari den Lege Aurreproiektuaren bitartez prebentzio, su itzaltze eta salbamendu zerbitzuak arautuko dira.

Aurreproiektuaren I. kapituluaren xedapen orokorrak jasotzen dira (1-2 artikulua). 1. artikuluari jarraiki, legearen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan prebentzio, su itzaltze eta salbamenduko jardura arautzea eta euskal administrazio publikoetan era horretako lanak egiten dituzten zerbitzuak nahiz zerbitzuotako langileen estatutu-araubidea arautzea. Legeak euskal administrazio publikoetako prebentzio, su itzaltze eta salbamendu zerbitzuei eta horietan diharduten langileei, suhiltzaile boluntarioei, eta Euskal Autonomia Erkidegoan enpresako suhiltzaile gisa diharduten suhiltzaile-zerbitzuei eragingo die. 2. artikulua arabera, legearen helburua da Euskal Autonomia Erkidego osoan eskaini ahal izatea prebentzio, su itzaltze eta salbamendu zerbitzua, legean jasotzen den moduan, eta zerbitzu horietan elkarrekin eta larrialdietako beste zerbitzu batzuekin koordinaturik aritzeko bideak aurreikustea, betiere gai honetan eskumenak dituzten administrazioen autonomia errespetatuta.

Aurreproiektuaren II. kapituluaren euskal administrazio publikoetako prebentzio, su itzaltze eta salbamendu zerbitzuak jorratzen dira (3-17 artikulua), III. kapituluaren estatutu-araubidea (18-28 artikulua), IV. kapituluaren suhiltzaile boluntarioak (29-31 artikulua), eta V. kapituluaren enpresetako suhiltzaileak (32-33 artikulua). Azkenik, zazpi xedapen iragankor; xedapen indargabetzailea, Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legearen IV. kapituluaren, eta herritarrek Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren duten borondatezko parte-hartzeari buruzko urtarrilaren 19ko 24/2010 Dekretua, indarrik gabe lagako dituena; eta azken xedapena.

Lege Aurreproiektuan hizkuntza aipurik ez badago ere, arauak euskararen erabileraren normalizazioari begira eragin positiboa izan dezan, ondoko proposamenak egiten ditugu:

b.1- Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikulua ezarritako euskararen eta gaztelaniaren ofizialtasunarekin bat, Euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak hizkuntza betekizun zehatzak ezarri zizkien

euskal herri administrazioei, eta horrela, xedatzen du herritarrek euskara eta gaztelania erabil dezaketela, ahoz nahiz idatziz, herri administrazioekiko harremanetan, arreta hizkuntza berean jasotzeko eskubidea barne (5.2.a eta 6.1 artikulua), botere publikoek bi hizkuntza ofizialak erabiliko dituztela jasotzeaz gain (8. artikulua). Logikoa dirudi beraz, prebentzio, su itzaltze eta salbamendu zerbitzuak kudeatzean euskal herri administrazioek hizkuntza betekizun berberak izatea.

Ondorioz, Lege Aurreproiektuaren testuan xedapen berria txertatzeko proposatzen dugu, eduki honekin:

-Lege hau betetzean Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioek euskararen eta gaztelaniaren erabilera bermatuko dute kanpoko harremanetan, herritarrek haiekin dituzten harremanetan nahi duten hizkuntza ofiziala, ahoz zein idatziz, erabiltzeko eta arreta hizkuntza berean jasotzeko duten eskubidea bermatuz.

b.2- Lege Aurreproiektuaren 9. artikulua bidez Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuak Koordinatzeko Batzordea sortuko da, gaiaren inguruan aholkuak eman, eztabaidatu eta parte hartzeko organo gorena izanik, eta Eusko Jaurlaritzan segurtasun publikoaren arloko eskumenak dituen sailari atxikita egongo da. Artikulu berean eginkizunak zerrendatzen dira, eta osaera finkatzen da, herri administrazio ezberdinen parte-hartzearekin.

Organo horren atxikipen publikoa eta osaera anitza ikusita, eta Euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea kontuan hartuta, lege berriaren 9. artikuluan edo Koordinatzeko Batzordea arautuko duen erregelamenduan bermatu beharko litzateke kideek bilkuretan euskara eta gaztelania erabiltzeko aukera, deialdi, gai-zerrenda, akta, ziurtagiri eta beste idazkietan Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilera aurreikusiz.

Adeitasunez,

Gasteizen, 2014ko azaroaren 24an

Ángel Lobera Revilla

Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria